

- Zergatik hasi zinen gose greban?

- Ikusi nuelako nik egin nezakeen beroka bakarra zela. Herria mugitzen ari zen, ezin ba ni geldirik egon. Uztailaren 30an eman nion hasiera.

- Abuztuaren 2an juizioa...

- Akozonatu nintzen. Bueno, ez da hori hitza. Ez dakit nola esan... Batez ere, gauza hoiek nola egiten ziren ez jakitza. Orain, jendea ikusi nuenen, gure jendea, bere kantak eta oihuak... Morala altxatu zitzaidan.

- Gose greba egiten ez da oso ondo pasatzen...

- Aurreneko 3 edo 5 egunetan ez. Gero... aurrera! Herria hola mugitzen ari zela jakiten nuenen, sekulako indarra hartzen nuen jarraitzeko (momentu guztian alpatzen dituzte herri mobilizapenak). 15 egunetan bizi normala egin arazi zidaten. Paseo eta guzti. Gero, konturatu zirenean ezin nuela, enfermeria jaxi (egia esan, enfermeria nire lehenengo zelda baino txarragoa zen. Arpi azpian zegoen eta kanpo ez zen ikusten) eta beste batekin jarri ninduten. Honek jan egiten nuen eta... Nahiko gaizki.

- Zer nolako mediku atentzioak eduki zituzten?

- Astean behin tentsioa begiratzen ziduten. Gero, 20 egun kumplitu zirenean, egunero. Enfermeria jaxi nindutenetik ohean etzanda denbora guztian. Hasieran irakurtzen nuen. Azken egunetan ezin. Medikuek ez zidaten esaten nola aurkitzen nintzen. Beraien aurpegiengatik jakiten nuen. Azkenean kerkatu ziren. Direktoreak ere egin zidan bixita.



APALA kaltean dago, baina "errefujiatu" paperik gabe.



Askatasun probisiozalek baldintzak dituzte: "Les Frères du Prado" ren konbentuan bizi beharra, atean 2 aldiz juizaren aurrean presentatu beharra, Urriaren 14an juizioan agertzea... " Fiskal eskatu zuena, hitz batean.

- Nola erabaki zenuten gose grebari amaiera ematea?

- Nahiz eta nere organizazioak bidalitako komunikatua jakin, aurrera jarraitzeko prest nengoen. Itxaropenak, edo, ez dakit zer izango zen, 34 egun neramalak baino, azkenean ito egiten nintzen. Mareatzen hasi. Hala nengoela, Irailaren 3an janaria sartu zidaten eta, hor bukatu zen nere gose greba. Nere lehen gose greba!

- Zergatik zuri? Eta orain?

- Poliziaren taktika zahar bat da. Azkeneko urte hauetan, nik etxetik alde egin nuenetik, nere atzetik zebiltzan. Badakizu, poliziak beti elementu bat hartzen du, eta propaganda asko ematen dio. Gero, pertsona hori zerbait gertatzen bazio - (hil, bahitu...) - Neri, estradizioa eskatu zidaten. Hemendik aurrera Frantziak askoraz kontu gehiagorekin emango ditu "refujiatu" paperak. Gero, Ibarraren kasua zela eta, oligarkiak ere eskua sartu zuen. Nobela bat izan zen dena. Pentxa! 15 urte nitueneko argazki batekin ezagutu ninduen neska meka... Europako estatuak akordioa -berak esaten duten bezala, "terrorismoaren" aurkakoa- ere ez dugu ahaztu behar. Estradizioaren problema latza baizik. Nere iritziz, herriari prueba bat egin diote. Txiki ere hil zutenean bezala. Eta, uste dut herriak irabazi duela - itxoin egin behar, baina-. Hasieran, detentitu eta hurrengo egunetan juizioa egiteko prest zeuden. Paperak falta zirela eta, atzeratu egin zen. Abuztuko juizioan berak izan ziren atzeratzea eskatu zutenak... Beste prueba bat ihaki Grazia eta Hilario Albizuri eginko juizioa izan da. Errefujiatuentzat ez dauka gauzak oso ondo!

- Bixita esko izan al dituzte?

- Bai. Egunero. Ama, anak, arre-

bak, izeba-osabak... Heurak ematen zidaten gertatzen zenaren berri.

- Zeri diotzu, momentu honetan, baldur haundiena?

- Eusakalduna naizenik, Euskadin bizi zela nahi nuke. Orain, askatasun probisiozale lortu dut, baina kondizio batzuen barruan. Kondizio horiek ez badira betetzen, berriro espetxera eramango naute. Estradizioak aurrera jarraitzen du. Urriaren 14 arte ez dakigu nola gelditzen den kontua. Gainera, oraindik "errefujiatu" paperak ez dirikidate eman. Garantiak badituzte, baina... Urriaren 8an bukatzen zale epea-4 hilabetakoa da- Ez badirikidate ematen...

ESKERRAK: Euskal Herri guztian egon diren mobilizapenak. Beste nazio zapalduetan izan diren laguntza - koroak, frantses ezkeriarak, okritanoak, bretoiak, katalanak, gallegoak, andaluzak, valentziarrak... Guztioi esker! Eta, aurrera jarraitu behar dugula. Gertatzen oraindik preso asko gelditzen dira. Amnistia orokorra lortu arte ezin dugu gelditu. Honela, pausoka pausoka, Euskal Herriaren Askatasuna lortuko dugu!

Zerbait honetan, artikulu hauek dauka euskaraz errazten "Demokrazia hila izan dadila", "Elvin, urrertxo jostailua" eta sinalea dutenak.